



SOZIALISMOA

Sozialistak Espainiara begira

Espainiaren etorkizun politikoak geroz eta gehiago kezkatzen ditu munduko elkarte politikoak. Horregatik doaz aste hauetan hainbat kanpoko delegazio Madril eta Barcelonara: liberalak, kristaudemokratikak, sozialistak, guztiek hartu dute Espainiarako trena. Dirudienez, Portugaleko eskarmenduak oso eskolatu ditu politik elkarte haiek. Eta, beste zenbaiten artean, etorri berria da urtarilaren 14ean Madrilerako Nazioarteko Elkarte Sozialistaren talde ordezkari bat.

Bospasei laguneko delegazioa izan da ikustari bezala etorri den hau: Jaime Gama (Portugaleko Alderdi Sozialista-koa), Jenny Little (Labour Party-koa), Veronica Isenberg (Alemaniako sozialdemokrata), Abraham Allon (israeldarra)

eta Pierre Guidoni (frantsesa) izan dira taldearen buru nagusiak, lehendakaritzat Hans Janitschek (Nazioarteko Elkarte Sozialistaren Idazkari orokorra) dutela. Talde ordezkari hau PSOEk dei eginda iritsi da, hemengo sozialistekin mintzatze-ko asmotan.

Espainian barneko partiduek herbestekoekin eta kideko dituzten Nazioartekoekin oraintxe bertatik sor ditzaketen harreman hauek garrantzirik haundiena ukan dezakete, zalantzarik gabe: orain, liderak molda eta kideko alderdiak hemen barnean eratu eta datorkeen "eten demokratikorako" indar daitezen; geroago Europara begira elkarrekin lan egiteko ere bai. Janitschek sozialistak azaldu duenez, Nazioarteko Sozialistak 56 partidu elkartzen ditu eta 80 bat milioi lagun dira alderdi horietara biltzen direnak. Alderdi sozialista horietatik, 22 daude orain agintean eta 12 Gobernu-buruzagi dituzte beste hainbeste Estatutan. "Nazioarteko Elkarte Sozialista da gaurregun munduko mugimendurik bortitzena eta beronen izpirituzko eragina Eliza Katolikoarenarekin bakarrik konpara daiteke", esan du Janitschek-ek.

Biltzarre Demokratikoaren eta Plataformaren arteko arazoan alde aurretiko jokaerarik hartu gabe heldu dira talde-koak; baina bai, inondik ere, Espainiaren europartasuna aitortuz: "Espainia, guretzat, Europako lurralderik axolazkoenetakoa da. Etorkizunean, Espainia eta Europa osoki besarkatuak behar ditugu. Espainia ez da, oporraldietarako lurraldea bakarrik.

Joanes Goia



KULTURA NAZIO ARTEAN



Kolonen aurreko literatura Latinamerikan

Neure harridura kondaturik hasiko naiz. Pariseko Trocadero enparantzako "Musée de l'Homme" famatura lehendabizikoz sartu nintzenean, han bildutako zibilizazio guztietatik gehienbat inpresionatu nindutenak Inka eta Azteka eta horienak dira. Hain bitxiak, hain enigmatikoak, hain misteriotsuak eta hain esanguratsuak; beste planeta batetik baletoz bezala.

Pariseko Gizonaren Erakustokian egon ala ez, miresleak ugari ditu zibilizazio zahar eta aurreratu honek. Aberatsik badago, hauxe da aberatsa. Espainolek kupidagabeko garbiketa eginda gero ere, aberastasun miresgarri bat nabari da zibilizazio hortan.

Oraindik ere ikertzen ari gara aberastasun hori. Ikerkuntza bakoitzak miresgarriago bihurtzen du, eta harrituago jartzen gaitu. Esaterako, literaturari dagokionez, liburu interesgarri bat argitaratu berri da oraintxe Frantzian. Espainolak hara joan aurretiko literatura, edo literatura prekolombiana aztertzen du. "Lettres précolombiennes" hortan Okzitaniako Tolosako Unibertsitateko irakasle den Georges Baudot jaunak adierazten digunez, literatur bizitza interesgarri baten testigantza ikusten dugu.

Nâhualt, maya eta inguruko zibilizazio horiek hitz idatzia maite dute. Idatzia sagaratu zen haientzat, esoterikoa. Haien liburuak zein landuak diren ikusi besterik ez dago. Miguel Angel Asturias Nobel Saridunari inoiz irakurri diogunez, afrikarrek ahozko tradizioa eta belarria zaindu zuten bitartean, juduen eta egiptiarren antzera, Mexiko eta behe-ragoko zibilizazio hauek idaztea maite dute. Espainiako kolonizatzaile basati haiek "Gaztelako izaren antzera bildurik", eta azal pintatuen barnean liburuak zituztenez, haiek ere harritu egin bide ziren.